



Iruñean, 2017ko azaroaren 17an

STEILAS sindikatuaren jarrera Haur eta Lehen Hezkuntzako oposizioen inguruan.

STEILAS sindikatuak hasieratik azaldu du Haur eta Lehen Hezkuntzako oposizioaren deialdiaren aurka dagoela, 73 lanpostu oso gutxi direlako eta oposizioaren emaitza lotuta dagoelako kontratazio zerrenden posizioarekin. Horrela, oso irakasle gutxik lortuko luke egonkortasuna eta, aldiz, kontratazio zerrendetan aldaketa asko gertatuko lirateke. Irakasle gehienek ikasi beharko lukete bakarrik zerrendetako beren posizioari eusteko eta hurrengo ikasturtean lanpostu bat segurtatzeko. Oposizioak eta kontratazio zerrendak bereiziko balira, guztiz onuragarria litzateke interino guztientzat.

Halaber, eskatzen dugu kontratazio zerrenda guztiak irekita egotea etengabe, nahi duten izangaiek izena emateko eta urtean behin zerrenda horiek birbarematzea.

Bestalde, Funtzio Publikoan eskatu dugu, ahoz zein idatziz, txosten bat azaltzeko ea 73 lanpostu horiek gehi daitezkeen 2019 urterako planteatu den oposiziorako, gure ustez "galtzen" ez direlako.

Era berean, uste dugu jende guztiak eskubidea duela lan egiteko nahi duen edo ahal duen tokian, eta gaur egun Nafarroan lanean ari den irakasleen zati esangarri bat beste erkidegoetatik edo estatuetatik etorria dela eta hori errespetatu behar dela.

Horregatik, bat egiten dugu bihar Iruñean gertatuko den interinoren mobilizazioaren zergatiarekin, baina ez dugu bat egiten mobilizazio berarekin, egiazko irtenbidea aldarrikatzen ez duelako eta "dei efektu" hori guztiz baztertzaila delako.

Irtenbidea litzateke, aipatu den bezala, 2019 urtean izanen den lan eskaintza publiko zabalean lanpostu hauek ere gehitzea eta STEILASEk berriki Parlamentuan aurkeztu duen kontratazio zerrenda integratuen kudeaketa ezartzea. Informazio hori dena eskuragai dago sindikatuaren webgunean.



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus